

86


**musika
hamabostaldia
quincena
musical**

donostia
san sebastián
abuztua 1-29
agosto 2025

20/8

“West Side Story”
Leonard Bernstein





@Paul de Hueck
(Courtesy of the Leonard Bernstein Office)

20/8

Asteazkena / Miércoles

20:00

Kursaal Auditorioa

"West Side Story" Leonard Bernstein

(versión concierto)

Musical en dos actos

Libreto de Arthur Laurents y letras de Stephen Sondheim. Basado en la tragedia "Romeo y Julieta" (1597) de William Shakespeare

Estrenado en el Winter Garden Theatre de Broadway, Nueva York, el 26 de septiembre de 1957

Euskadiko Orkestra

Easo Abesbatza

(Gorka Miranda, abesbatza zuzendaria)

Clark Rundell zuzendaria

Miren Urbietta-Vega (Maria)

Caspar Singh (Tony)

Nerea Berraondo (Anita)

Henry Neill (Riff)

Jorge Ruvalcaba (Bernardo)

Arantza Ezenarro (A girl)

Lucía Gómez (Consuelo)

Juan Laborería (Action)

Lorea López (Francisca)

Ainhoa López de Munain (Rosalia)

Luken Munguira (A-Rab)

Julen García (Diesel)

Darío Maya (Big Deal)

Mario Hernández (Baby John)

Con la participación de Ibai Murillo e Izei Música

Acto I Ekitaldia

Prologue

Jet Song

Jet Song Chase

Something's Coming

Something's Coming Chase

The Dance at the Gym

Promenade

Mambo

Cha-Cha

Meeting Scene

Jump

Maria

Balcony Scene

America

America to Drugstore

Cool

Cool Chase

One Hand, One Heart

Tonight

The Rumble

Acto II Ekitaldia

I Feel Pretty

Under Dialogue

Ballet Sequence

Transition to Scherzo

Scherzo

Somewhere

Procession and Nightmare

Gee, Officer Krupke

A Boy Like That / I Have a Love

Taunting Scene

Finale

Euskadiko Orkestra y Easo Abesbatza, bajo la dirección del maestro inglés Clark Rundell, interpretan la versión completa de la popular banda sonora de “West Side Story”. El musical, la versión de “Romeo y Julieta” del siglo XX, cuenta la historia de dos jóvenes con vínculos en bandas de diferentes culturas que están enfrentadas. Los protagonistas se enamoran al mismo tiempo que sus pandillas disputan el control de los barrios neoyorquinos en los años 50. La música, compuesta por el norteamericano Leonard Bernstein entre 1955 y 1957 y estrenada este último año, acompaña de forma brillante los giros de guion y los diferentes sentimientos que se exploran en el musical, de forma que, aun prescindiendo de la representación, la versión concierto es capaz de narrar la historia a la perfección.

Tras su estreno en Nueva York, el musical obtuvo tal éxito que fue programado 772 veces en menos de dos años, a lo que se sumó la gira nacional que se realizó a principios de 1960. Bernstein extrajo nueve secciones de su composición original, para unir las y poder ser interpretadas solas, las conocidas “Danzas Sinfónicas”. Estas piezas, que se programan habitualmente, se estrenaron el 13 de febrero de

1961 por la Filarmónica de Nueva York en el concierto de gala Valentine for Leonard Bernstein, bajo la dirección del maestro alemán Lukas Foss. En esta ocasión, sin embargo, el público tendrá la oportunidad de escuchar toda la música original escrita para coro y orquesta. Esta versión ha sido menos interpretada en los últimos años, pero desde el estreno de la película “West Side Story” (2021) dirigida por Steven Spielberg, ha vuelto a protagonizar grandes conciertos.

La brillante orquestación, en la que destaca la presencia del piano, el saxofón y una gran sección de percusión, ayuda a disfrutar de la variedad y el contraste de estilos musicales que se aprecian en la obra. Bernstein, además, aplica distintas técnicas compositivas que van desde las más clásicas a otras del siglo XX, extraídas mayoritariamente del Jazz. Hoy en día la música de “West Side Story” sigue siendo interpretada mundialmente, especialmente sus *highlights* musicales, como el *Mambo*, con su trepidante ritmo y sus solos de los metales, así como la característica cuarta aumentada de la melodía de *Maria*. Se trata, probablemente, de la composición del siglo XX más conocida e influyente en la cultura popular.

Manex Gorostegi *

*Alumno de Musikene participante en el proyecto de colaboración *Musika Hitzetan* (Música en palabras) promovido por la Quincena Musical

Euskadiko Orkestrak eta Easo Abesbatzak, Clark Rundell maisu ingelesaren zuzendaritzapean, “West Side Story” soinu-banda ezagunaren bertsio osoa interpretatuko dute. Musikala “Romeo eta Julieta”ren XX. mendeko bertsioa da, eta aurrez aurreko bi bandetan (kultura ezberdinetakoak) sartuta dauden bi gazteren istorioa kontatzen du. Protagonistak maitemindu egiten dira, baina beren bandak, aldi berean, New Yorkeko auzoen kontrola lortzeko lehiatzen dira 50eko hamarkadan. Leonard Bernstein iparramerikarrak idatzi zuen lana, 1955 eta 1957 urteen artean, eta urte horretan bertan estreinatu zuen. Musikak maisuki laguntzen ditu gidoi-birak eta lantzen diren sentimendu desberdinak; antzezpena alde batera utzita ere, kontzertuaren bertsioa gai da istorioa ezin hobeto kontatzeko.

New Yorken estreinatu ondoren, musikalak arrakasta handia izan zuen, eta bi urtean baino gutxiagoan 772 aldiz programatu zuten; horrez gainera, 1960. urtearen hasieran bira nazionala egin zen. Bernsteinek bederatzi atal atera zituen jatorrizko konposiziotik, “Dantza Sinfonikoak” ezagunetan elkartu eta bakarrik interpretatu ahal izateko. Programatu ohi diren pieza horiek 1961eko otsailaren 13an

estreinatu zituen New Yorkeko Filarmonikoak, Valentine for Leonard Bernstein gala-kontzertuan, Lukas Foss maisu alemaniarren zuzendaritzapean. Oraingo honetan, koru eta orkestrarako idatzitako jatorrizko musika guztia entzuteko aukera izango dugu. Azken urteotan ez da bertsio hau interpretatu izan, baina Steven Spielbergekin zuzendutako “West Side Story” (2021) filma estreinatu zenetik kontzertu handien protagonista izan da berriro ere.

Orkestrazio distiratsuak, non nabarmen-tzen baiten pianoaren, saxofoiaren eta perkusio sail handi baten presentzia, lan honetako musika-estilo askotarikoez eta kontrasteaz gozatzen laguntzen du. Bernsteinek, gainera, hainbat konposizio-teknika aplikatzen ditu, klasikoenetatik hasi eta XX. mendeko beste teknika batzuetara, Jazzetik ateratakoak gehienak. “West Side Story”ren musika mundu osoan interpretatzen da gaur egun, bereziki bertako *highlights* musikalak, hala nola *Mambo* –erritmo ikaragarriarekin eta metalen soloe-kin– eta *Maria* melodiaren laudun gehitua. Lan hau da, seguru asko, XX. mendeko musikalen artean ezagunena eta eragin handien izan duena herri-kulturan.

Manex Gorostegi *

*Musika Hamabostaldiak bultzatutako *Musika Hitzetan* lankidetzan proiektuan parte hartu duen Musikeneko ikaslea



Sinopsia

Euren buruari “amerikar” izena ematen dieten Jets banda kaletarrekoen eta Sharkstarren, Puerto Ricoko gazte-taldearen, arteko tirabirak begi-bistan geratzen dira *Atarikoan*. Jetstarren lider Riff-ek Bernardo buru duen beste taldea kaleetatik kanporatzeko promesa egiten du (*Jet Song*). Riffek gau horretan bertan gimnasioan egitekoa den dantzaldian, Bernardori desafio egitea erabaki du eta Tony, Jetstarren sortzaileetako bat den bere lagun mina, egiteko horretan lagun dezan konbetzitzen du. Tony taldetik urruntzen joan da eta beste emozio batzuk hartu dutela sentitzen du (*Something's Coming*), baina hala ere Riffen proposamena onartu du.

Maria, Bernardoren arreba, Puerto Ricotik iritsi berria da haren lagun Chinorekin ezkontzeko asmoz, eta gimnasioko dantzaldira gerturatu da (*The Dance at the Gym*); taldeen arteko gorrotoa nabarmena den arren, Tonyk hura ezagutu eta berehala maiteminduko da Mariarekin (*Maria*). Dantzaldia eta gero, borrokaldirako tokia eta armak aukeratzeko asmoz gazte-bandak Doc-en botikan elkartzen diren bitartean, Tonyk bere etxeko sute-eskaileran bisitatzen du Maria; han maitasuna aitortzen diote elkarri (*Tonight*), eta biharamunean Mariak lantoki duen ezkongai-soinekoen dendan berriz elkar ikusteko promesa egiten dute.

Tonyk alde egin ondoren, botikara joan aurretik, Sharkstarrek euren neska-lagunak etxera laguntzen dituzte. Txantxetan bada ere, liskarra gertatzen da orduan Anitaren eta herriminak jotako puertorricar neska baten artean; haren herrialdean bizitzearen abantailen inguruko eztabaidan nahasten dira Manhattanen bizitzarekin alderatuz (*America*).

Botikan, Jetstarrek urduri daude Sharkstarrekin laster izatekoa duten elkarretaratzegatik, baina Jeffek lasai egoteko gomendatzen die (*Cool*). Sharkstarrek iristen direnean, Tonyk, temati, hartara bultzatuta, borrokaldi zintzoa egitea akordatzen dute, eta hurrengo gauean autobide azpian borrokatzeko mutilik hoberena aukeratzen du talde bakoitzak. Hurrengo egunean, Tonyk bisita egiten dio Mariari dendan eta, maniki artean, ezkontza-zeremonia hunkigarri bat irudikatzen dute (*One Hand, One Heart*). Mariak horren taldearen eta bere anaiairenen arteko borroka geldiaraziko duela hitzemanarazten dio Tonyri. *Tonight* kintetoan, Tony eta Mariak beren maitasuna abesten dute; Anitak, Bernardoren neska-lagunak, berealdiko gau-jai baterako planak egiten ditu, Bernardo, Riff eta beren bandek borrokaldirako aferak prestatzen dituzten bitartean.



Autobide azpiko zonalde bakarti batean bandak borrokarako elkartzen dira. Borrokaldea hastear dela, Tony arrapaladan agertzen da, eta Mariari hitzeman bezala, gelditzeko erregutzen die. Bernardo haserre bizian da Tony bere arreba limurtu nahian ibili delako, eta bultza egiten dio bortizki. Bapatean labana automatikoak atera eta Riff eta Bernardok borrokari ekiten diote (*The Rumble*). Hurrengo ekintzan, Riff sastakatu egiten dute eta Tonyk ere bere labana hartu eta Bernardo sastakatzen du. Burua guztiz galduta, bi bandak borrokan hasten dira poliziaren sirenak geldiarazten dituen arte. Ihes egiten dute denek Riff eta Bernardoren hilotzak bertan utzita.

Bere logelan, Maria pozik ari da Tonyrekin duen hitzordurako prestatzen (*I Feel Pretty*). Ez daki ezer gertatutakoaz, Chino logelan sartu eta bere maitaleak anaia erail diola kontatzen dion arte. Chino, pistola eskuan duela, Tonyren bila abiatzen da korrika. Tony, ordea, sute-eskaileran gora Mariaren logelara igo da eta, Maria, oinazea oinaze, ez da gai hura etxetik botatzeko. Elkarri etsipenez helduta, aurreiritzietatik urrun, libre izan daitezkeen toki bat irudikatzen dute (*Somewhere*). Kale eta kalekaskan, erailketengatik guztiz izututa, bandak polizia saihestu nahian dabilta. Jets taldeko

bi kidek, jada poliziak galdekatu dituen Action eta Snowboy-k, Nagusiak nola gobernatu azaltzen diete gainerakoei (*Gee, Officer Krupke*).

Anitak, guztiz atsekabetuta, Mariaren atea jotzarekin batera, Tonyk leihotik alde egiten du, Docen botikako sotoan babesteko. Anitak errieta egiten dio Mariari Tonyri beregana gerturatzten utzi diolako (*A Boy Like That*), baina Mariaren erantzuna (*I Have a Love*) ukaezina da, eta azkenean Tonyri Chino bere bila dabilela ohartaraztea onartzen du Anitak. Botikarako bidean, Jetstarrek Anita gogor iraintzen dute bere herritartasuna dela-eta. Anitak, guztiz aztoratuta, bestelako mezua helarazten dio Tonyri: Chinok, mendekua hartzeko, Maria erail du.

Docek Anitak esandakoa kontatzen dio Tonyri. Hura bere gordelekutik atera eta, erabat asaldatuta, noraezean dabil kaleetan zehar Chinori deika, bere bila etorri eta bere bizitzarekin amaitu dezan. Gauerdian bila dabilkion Mariarekin egiten tu topo, baina elkarrekin egiten duten denbora laburra da: Chinok, eraikin baten atzetik agertuta, tiro egiten dio Tonyri eta erail egiten du. Bi bandak, Jetstarrak eta Sharkstarrak, harri eta zur, itzaletatik ateratzen dira eta, Mariaren zorigaitzarekin bat eginda, Tonyren gorpua jaso eta eraman egiten dute.



Sinopsis

Ya el *Prólogo* muestra las tensiones entre los Jets, una pandilla callejera que se autodenomina “americana”, y los Sharks, un grupo de jóvenes puertorriqueños. El líder de los Jets, Riff, promete expulsar a los Sharks, liderados por Bernardo, de las calles (*Jet Song*). Riff decide desafiar a Bernardo esa noche en un baile en el gimnasio, y convence a su mejor amigo y cofundador de los Jets, Tony, para que le ayude. Tony se ha ido alejando de la banda y siente el despertar de otras emociones (*Something's Coming*), pero acepta la propuesta de Riff.

La hermana de Bernardo, María, recién llegada de Puerto Rico para casarse con su amigo, Chino, asiste al baile (*The Dance at the Gym*) y, a pesar del evidente odio entre las bandas, conoce a Tony quien se enamora inmediatamente de ella (*María*). Más tarde, después del baile, mientras las pandillas comienzan a reunirse en la farmacia de Doc para elegir un lugar y sus armas para la pelea, Tony visita a María en la escalera de incendios de su apartamento, se declaran su amor (*Tonight*), y prometen encontrarse el día siguiente a la tarde en la boutique de vestidos de novia donde trabaja María.

Cuando se marcha Tony, los Sharks llevan a sus chicas a casa antes de ir a la farmacia. Se produce entonces, una discusión, en forma de broma, entre Anita y una chica puertorriqueña, que habla con nostalgia de su hogar, sobre las ventajas relativas de la vida en su país, y en Manhattan (*America*).

En la farmacia, los Jets están nerviosos por la próxima reunión con los Sharks, pero Riff les aconseja que se mantengan tranquilos (*Cool*); y cuando llegan los Sharks, se llega a un acuerdo, ante la insistencia de Tony, para celebrar una pelea justa, a mano limpia, en la que cada banda elige a su mejor hombre, para pelear la noche del día siguiente bajo la autopista. Al día siguiente, Tony visita a María en la tienda y, entre los maniqués, representan una conmovedora ceremonia de boda (*One Hand, One Heart*). María le hace prometer que detendrá la pelea entre su banda y la de su hermano. En el quinteto *Tonight*, Tony y María cantan sobre su amor, Anita, la novia de Bernardo, hace planes para una gran velada, y Bernardo, Riff y sus bandas hacen sus propios planes para la pelea.



En una zona desierta bajo la autopista, las pandillas se reúnen a pelear. Cuando está a punto de comenzar la pelea, Tony se apresura a intervenir y les ruega que se detengan, tal y como le ha prometido a María. Bernardo, enfurecido porque Tony se ha insinuado a su hermana, lo empuja con furia. De repente, sacan las navajas automáticas, y Riff y Bernardo comienzan a pelear (*The Rumble*). En la acción que sigue, Riff es apuñalado y Tony, empuñando su arma, apuñala a Bernardo. Enloquecidas, las bandas empiezan a pelear hasta que son interrumpidas por una sirena de la policía. Huyen, dejando atrás los cuerpos de Riff y Bernardo.

En su habitación, María se prepara feliz para su cita con Tony (*I Feel Pretty*). No sabe nada de lo que ha pasado hasta que Chino irrumpe en su habitación y le dice que su hermano ha sido asesinado por su amante. Él, cogiendo una pistola, sale corriendo en busca de Tony. Sin embargo, Tony ha subido por la escalera de incendios hasta la habitación de María y, a pesar de su dolor, ella es incapaz de echarlo de su casa. Aferrándose desesperadamente el uno al otro, imaginan un lugar donde puedan ser libres de prejuicios (*Somewhere*). En las calles y callejones, las bandas huyen de la policía, presas del

pánico por los asesinatos. Dos de los Jets, Action y Snowboy, que ya han sido interrogados por la policía, explican al resto cómo manejar a los Adultos (*Gee, Officer Krupke*).

Anita, afligida, llama a la puerta de María, y Tony se marcha por la ventana, para refugiarse en el sótano de la farmacia de Doc. Anita regaña a María por permitir que Tony se acerque a ella (*A Boy Like That*), pero la respuesta de María (*I Have a Love*) tiene una fuerza tan irrefutable que, finalmente, Anita accede a advertir a Tony de que Chino va a por él. Camino a la farmacia, los Jets insultan brutalmente a Anita por su nacionalidad, por lo que ésta, histérica, transmite a Tony un mensaje diferente: Chino, para vengarse de él, ha matado a María.

Doc le cuenta a Tony lo que Anita ha dicho, y Tony sale de su escondite y deambula aturrido por las calles, llamando a Chino para que venga a su encuentro y acabe con él. A medianoche se encuentra con María, que lo ha estado buscando, pero su momento juntos es breve: Chino aparece por detrás de un edificio y dispara a Tony, matándolo. Ambas bandas quedan atónitas, los Jets y los Sharks, salen de las sombras y, unidos por la tragedia a través de María, levantan el cuerpo de Tony y se lo llevan.



**Donostiako
Musika Hamabostaldia
Quincena Musical
de San Sebastián**

Centro Kursaal Elkargunea
Zurriola 1
20002 Donostia / San Sebastián
Tel.: 943 00 31 70
quincenamusical@donostia.eus
www.quincenamusical.eus

Sarrerak / Entradas

Leihatilak / Taquillas:
Kursaal
Teatro Victoria Eugenia
Antzokia
www.quincenamusical.eus

Informazio gehiago:
Más información:



Datozen kontzertuak / Próximos conciertos:

22/8

20:00
Orquesta Nacional de España
David Afkham, zuzendaria

24/8

20:00
Le Concert des Nations
La Capella Nacional de Catalunya
Jordi Savall, zuzendaria

27/8

20:30
Orchestre de l'Opéra National de Paris
Thomas Adès, zuzendaria
Kirill Gerstein pianoa

28/8

20:00
Gewandhausorchester Leipzig
Andris Nelsons, zuzendaria
Hilary Hahn biolina

29/8

20:00
Gewandhausorchester Leipzig
Orfeón Donostiarra
Andris Nelsons, zuzendaria





BI AHOTSETAN

Donostiako Musika Hamabostaldiaren podcasta

Zein doinu du maitasunak? Nola abesten zaio heriotzari? Eta nostalgia?... Donostiako Musika Hamabostaldiaren podcast sailaren atal bakoi-tzean, musika klasikoa aitzaki hartuta, horren inspirazio iturri izan diren gai unibertsalei buruz solasean ariko dira **Joseina Etxeberria** kazetaria eta euskal gizartean, eremu jakin batean bere jardunagatik (kultura, kirola...) ezaguna den gonbidatu bat: **Harkaitz Cano, Edurne Pasaban, Iñaki Peña, Aitziber Garmendia, Lide Hernando eta Julen Martija.**

Musika klasikoa eta solasaldia uztartuta, lasai entzun eta gogoeta egiteko saioa.



A DOS VOCES

Un podcast de la Quincena Musical de San Sebastián

¿Cómo suena el amor? ¿cómo se canta a la muerte? ¿y a la nostalgia?... en cada capítulo del podcast de la Quincena Musical de San Sebastián, el periodista **Joseina Etxeberria** y un invitado que destaca en la sociedad vasca por su actividad en el ámbito de la cultura, del deporte, etc. charlarán sobre los temas universales que han inspirado la música clásica, con ésta como hilo conductor. Participan **Harkaitz Cano, Edurne Pasaban, Iñaki Peña, Aitziber Garmendia, Lide Hernando y Julen Martija.**

Música clásica y conversación, para una escucha reposada.





GONZALEZ LARRAURI

CALLE URBIETA 2, 20006 SAN SEBASTIÁN
GONZALEZLARRAURI.NET

